

Nafarrokaria


Nafarrokaria / Ostirala, 1992ko azaroak 6 / II. urtea / 49. zenbakia

Tren geltokiak, hutsik

Bi hormetara



JOXETXO AZKONA



Iruñeko geltokia da aldaketa gutxien somatuko duena.

JOXE LACALLE

Urtariletik aurrera ibilbide luzeko eta trenbide erregional gutxiago izango dira Nafarroan, RENFEk defizitari aurre egiteko burutu duen egitasmo orokorraren arabera. Horrek geltoki txikietan izango du eragina, ibilbideak kentzea baino, geldialdi eta zerbitzuak gutxitzea bait da helburua. Nafarroak biziki somatuko du neurria, iaz hamaika

geltoki itxi bait ziren, eta beste askotan bidaiarien kopurua ez bait da enpresak eskatzen duen mailakoa zerbitzuari eusteko. Egoeraren aurrean oso kezkatu dira sindikatuak, eta administrazioaren partaidetza eskatzen dute zerbitzuei eusteko, defizita ordaintzearen truke. Bitartean, errepideak beteta eta geltokiak, hutsik.

Ez dakit zein neurritan datekeen lurral berez duen indar telurikoa eta zeinetan berarekiko eduki dezakedan nere aldeko perzeptzioa baina, ni basoak ukitu, eraberritzen nau. Biziki, gainera.

Hartara ailegatzeko, hau da, baso eragina halako indarrez senditu ahal izateko, urteetan barnako andana bat igande eta egun solte franko eman behar izan dut mendian, gazte-gazterik hasi eta gaur egunera arte segituz, bai lagunartean bai bakarti, beti ere, mendiaz gozatu asmoz.

Baina basoaz orain dudan perzeptzioa edukitzeko, mendiari gora maiz ibiltzeaz gain, beste ariketa mota bat ere egitera behartu izan dut neure burua, hots, basoaz eta bertan bizi eta lan egiten dutenen gaineko hainbat idealizazio eta uste oker bazterrean uztekoa. Behin bi saio hauek, oinez eta buruz egin beharrekoak burutu ondoren, bide zuzen batean geundeko; basora, espazio erreal eta sinbolikotzat begiraturik, haren osotasunean barrentzeko.

Jende gutxi da gero, bertako zein kanpokoa dela, Nafarroako baso apartez liluratzen ez denik. Eta ez da harritzekoa. Iruñean berrikitan egin den Pagoaren Nazioarteko Kongresuan, pagoaren hobekuntzarako proposamenduak luzatu ezezik, zenbait datu esanguratsu ere plazaratu dituzte.

Nafarroako zabalgoaren % 13 pagadi da, 135.000 Ha. izanki pagadiak hartzen dituenak. Ezin atzendu, halaber, haritza, artea, lizarra, gaztainondo, koniferak eta besterik ere badirela baita luze-zabalean erruz horniturik.

Basogintzaren jakileek, bestetik, badarabilte basoa bere gorengo mailara iritsia dela argitzeko balio duen kontzeptu ezin erakargarriagoa: 'klimax' deritzona. Gauzak hola, Azaparrak eta Lizardoiako pagadiak, hurrenez-hurren, Erronkarin eta Iratin kokatuak, baso 'errealizatuak' direla esan dezakegu, biek 'klimax-i' heldu bait diote perfekzioa erdietsiz.

Lizardoiako kasuak zer pentsa ematen dit, ordea. Zer dela-eta pagoz beteriko baso baten izenak 'lizar' erroa eramatea? Irudikatu nahi dut, noizbait, lizar eta pago mardul batek elkar ezagutu eta azala joko zutela eta, bien arteko jardunaren ondorioz, gen eginkorrenak zituena, bere kimuei umatuko zuela lur-barruti hori. Beroni Pagodi izenaz deitu ordez, logikoena izango zena bestalde, Lizardoiak izendatzea erabakiko zuten.

Kontuak kontu, ardoa errekan freskatzen utzi, naturari buruzko Orixeren poema mistikoak leitu, belartzan lizunki jostatu, edota, basoari so egite hutsak harri gorolditsua esertoki bihurtuta, beste klimax batera garamatzake ere basoaren barrengoan, akaso, pagoarenarekin bat eginez.

Barnean

ETNOGRAFIA



Nafarroako Museoa Iratxen paratuko dute / VII

HISTORIA



Mikelarenak familia eta kultura aztertu du / VIII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Patxi Paris argazkilariaren lanak ikusgai daude Tafallako erakusketa aretoan, Kultur Patronatoak eta Higuera argazkilari taldeak antolatutik. 'Tendido de sol' izenpean aurkeztu ditu artistak bere argazkiak.

Sagrario San Martinen lanen erakusketa zabalduko dute gaur bertan, ostirala, Iruñeko Pintzel Galerian. Erakusketa hilaren 28ra arte egonen da zabalik, goizean zein arratsaldean.

Luis Vidal pintoreraren lanak Aurrezki Kutxa Munizipalak Iruñeko Garcia Castañon kaleko aretoan duen erakustokian daude ikusgai, hilaren 22ra arte. Loreak, zuhaitzak eta gai abstraktuak dira pintura gehienen gaiak.

IKASTAROKAK



Dantzak ikasi edo fanfarre batean musika jo nahi duten neska-mutilek Ortazar Iruñeko euskal folklore taldearekin harremanetan jartzea besterik ez dute, taldeak berak jakinera eman duenez. Interesatuak dantza taldeak Descalzos kalean duen egoitzara joan daitezke, edo telefonoz deitu.

ERRAN DUTE

«Euskaldunek ez dute sekulan elkar ulertuko».

Roberto Matta
Artista

«NUP lasterregi ari da hazitzen».

Richard Selden
Ekonomilaria

«Euskara ikastea ongi dago, dibertimenduz, baina ingelesak askoz interes handiagoa dauka».

Gabriel Urralburu
Politikaria


«Galiziakoa izatea gustatuko litzaidake, han PSOEK ez bait dauka zer eginik».

Juan Cruz Alli
Lehendakaria

Mendi ibilbideak aurrerantzean

Hemendik aurrera, txoko honetatik, mendizaletasuna bultzatzeko ahalginean arituko gara. Igandero Nafarroako taldeek egiten duten ibilaldi baten berri emango dizugu, eta beraiekin joateko datu guztiak eskaini. Aste honetan Nafar Mendizaleen Federakundearekin joanen gara, Xabier Goñik daraman pedagogia bokaliaren bidez. Lau urteko esperientziarekin dagoeneko, bi ibilbide desberdinak egiten ditu federakundeak: Nafarroan barna zeharkaldiak, eta Pirineotara. Adina, 14 urtetik gorakoa, eta ateraldiak, igandero.

Asteburu honetarako Bera eta Larunen arteko ibilaldia prestatu dute. Beratik atera eta kilometro t'erdira hasiko gara igotzen, Alzate auzoan. Baso, baserri eta erreken bitartean desnibel polita gainditu beharko dugu, Bera bait da Nafarroako herri baxuena (25 m.). Larunek 905 metro dituela kontutan hartuta... Baina gotik ikusmirak merezi du: Baionatik



Ondarruraino, eguraldia ona izanez gero, eta Baztango tontorrak, Mendaurren...

Izena emateko Federakunde bertan —Paulino Caballero, 13—

egin behar duzue astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 8etatik aurrera, edo 10 78 48 telefonora deituta. Galdetu Xabier Goñiz. Txango guztiak 600 pezeta balio dute.

Nazioarteko politika, 2000 Urtearen Bidegurutzea gaiari buruzko ikastaroa hasi da aste honetan IPES elkartearen, ostegunetan hain zuzen, azaroak 5. Bi ordutegi izango ditu, goizez eta arratsaldean, eta bakoitzak nahi duen txandan apuntatu daiteke. Javier Aisa kazetariak eta Javier Mateo historiagileak zuzenduko dute ikastaro hau.

Ingelesa ikasteko aukera zabaldu du Alde Zaharreko Auzo Elkartek, egunero ordu beteko ordutegiarekin, bi maila desberdinetako ikastaroa antolatu baitu. Honetaz gain, pintura, kosmetika naturala, masaia eta autodefensa ikastaroetan ere toki sobera dago. Izena emateko, elkarteak aldapa kalean duen egoitzara jo behar da, arratsaldeko 8etatik 10etara.

ZINEMA



Vacas' izeneko filma ikusteko aukera izango da haldu den osteguna, hilak 12, Tafallako Zinema Españolan, Garces de los Fayos Kultur Patronatoak urria osoan zehar antolatu duen egitarauaren barruan. Gogoratu behar pelikula hau gehienbat Baztanen errodatu zela, eta bi baserriko

ANTZERKIA



Sueño de una noche de verano' ('Udako gau baten ametsa') izeneko lana aurkeztuko du bihar larunbata, hilak 7, Trokolo taldeak, Berriozarko Kultur Etxeak hil honetan antolatu dituen IX. Antzerki Ihardunaldien egitarauaren barruan. Emanaldia Mendialdea Ikastetxearen areto nagusian izanen da, arratsaldeko 7etatik aurrera.

ASTEKO PERTSONAIK

Merçe Sala



RENFEko burua

Miguel Indurain



Txirrindularia

Javier Pomes



Ekonomia kontseilaria

Nafarroara egindako bisitaldian, Merçe Sala geltoki berriak bisitatzeaz gain, Juan Cruz Alli lehendakariarekin elkarrizketatu zen orain agortua dagoen hitzarmenari jarraipena emateko. Honen arabera, zenbait geltoki eta zerbitzuetan egin beharreko inbertsioak Nafarroako Gobernu eta enpresaren artean egingo litzateke. Salak ere aurrean itxi berri diren geltokiak aipatu zituen: Bakaiku, Hiriberri-Arakil, Zuasti eta Lakuntzakoa. Ez zuen argitu baina, zerbitzuei eusteko gobernuarekin hitzarmen bat eginga ote zuen.

A tarrabiako txirrindulariak lore ederra paratu zion pasaden asteburuan bere denboraldia bikainari, Espainiako Asturias saria jasotzerakoan. Miguel Indurainen kandidaturak lehia bizia izan zuen Carls Lewis atleta estatubatuararekin, baina esprintean irabazi zion nafarrak. Berarekin batera Roberto Matta artistak ere jaso zuen bere saria artean sailan, eta gogoratu behar Nafarroako Gobernuak proposatu zuela horretarako. Matta, baina, ez zen oroitzen Nafarroaz, eta ez zekien zer esan nahi zuen ere sariak.

Juan Cruz Alliren gobernuaren Jarazo ekonomikoek ez omen dute irtenbide erreza. Lehendakariak berak horren kariaz sozialisten kontra kristorenak eta bost bota ondoren, Espainiako Auzitegi Gorenak 'konstituzioaren kontraketat' jo zituen PFEZri buruz Lege Foralaren zenbait artikulua. Pomesek «ak...sa politiko eta juridikotzat» jo zuen erabakia, eta Nafarroako eskubide fiskalak ez zituela errespetatzen azaldu zuen. Hori dela eta, gobernuak ezin izango ditu pisu eta hipoteken agiriaren gaineko zergak jaso.

aizkolarien arteko lehiak eta baserrien bilakaera bera azaltzen du maisuki.

MUSIKA



BAP taldeak bere azken diska aurkeztuko du gaur, ostirala, Iruñeko Arrano elkartearen gabeko 9etatik aurrera.

Catorce de Septiembre' taldeak bere diska aurkezteko jaia prestatu du Uharteko El Limite dantzalekuan. Diska, 'Deseos Prohibidos' izenekoak, gabez aurkeztuko da eta sarrerak mila pezeta kostatuko du.

La pòlla Records' taldeak Garesko dantzalekuan joko du bihar larunbata, goizeko ordubatek aurrera. Beraiekin batera, Erriberriko Flema taldea.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Bera

Noain

Oinez antolatzeke eskaera egin du Udalak

IRUÑA

Heldu den urteko Nafarroa Oinez Beran egin liteke, Nafarroako Ikastolen Federakundeak ontzat hartzen baldin badu La-beaga ikastolak eta bertako Udalak egin duten eskaera. Biaz geroztik aipatua zen jada Bidasoako herriko kandidatura, baina kontutan hartuz herri askok eskatu dutela festa, oraindik ez dago deus erabikirik.

Urtetik urtera euskararen aldeko festak hartu duen ospe eta arrakasta ikusita, ikastola bat baino gehiagorendako izan da arazo ekonomikoak gainditu eta etorkizunera beste era batera begiratzeko parada. Hori dela eta, Berakoarekin batera, Altsasu, Tafalla, Lizarra eta beste herri batzuetako ikastolek eskatua dute dagoeneko heldu den urtean Nafarroa Oinez antolatzea.


Baina kinielen artean Bortzrietako herriaren alde pisu handien egin dezakeena bertako Udalak egin duen eskaera da. Udalaren ustetan, Berak badu azpiegitura nahikoa horrelako festa batek eskatzen dituen beharrei aurre egiteko, eta futbol zelai berria, kiroldegia, igeritokia, tenis zelaiak, frontoiak eta komunikazio onak aipatzen ditu. Hala, aho batez azken udalbatzan onartu zen mozloaren arabera, Udala prest legoke behar den laguntza tekniko guztia emateko.

IKASTOLAREN LOKAL BERRIAK Labeaga ikastolak, berriz, eraikin berria

behar du hezkuntza arloan izan diren aldaketetara egokitzeko. Egun, Alzate kalean dagoen eraikina ez da nahikoa horretarako, eta, Udalarekin batera, zenbait ekintza bultzatu ditu azken urteotan lokal berriak izan ahal izateko.

Horrela, Udalak lur berriak utzi zizkion ikastolari duela gutxi, eta Plangintza Orokorraren aldaketei ekin zieten, eraikina egin ahal izateko. Azkenean Bera aukeratuko balitz, alde garrantzitsuko ikastola bultzatuko litza-teke berriro ere.

Kinielen artean Beraren alde pisu gehien egin dezakeena Udalak egin duen eskaera da. Azpiegitura nahikoa eta laguntza handia izango luke festak.



Noaingo aireportuak aldaketa gehiago izango ditu hurrengo egunetan.

Aireportu 'berria' ireki da

IRUÑA

Pasa den asteburuan zabaldu zen aireportuaren terminal berria, eraikuntza osoa aldatzeko egiten ari diren lanen barruan. Berrikuntzek, itxaron gela goitik behera aldatzeaz gain, zenbait hobekuntza tekniko ekarri dute aireportura, eta lehendabiziko egunetan harrera ona izan zuten bidaiarien partetik.

Oraingo terminal berria lehengoa baino askoz ere handiagoa da eta hobekuntzek bertako langileen lana erreztuko dute. Horrela, fardelak eta mailetak mugitzeko eta sailkatzeko sistema automatikoa paratu da martxan.

Hala ere, aireportu 'berri' honetan, oraindik ere, itxaron gela da gehien nabarmentzen dena, beste berrikuntzak pixkanaka paratuko baitira martxan, lanak amaitu ahal.

KAFETEGIA LUZE GABE Hain zuzen ere, luze gabe dendak eta lokal komertzialak irekiko dira, eta kafetegi berria ere zabalduko da. Orobat, fardelak fakturatzeko sistema berria ere astelehenean hasi zen martxan. Beranduago ekingo dio aireportuak kanpoko esparrua egokitzeari, aldaketek zenbait arazo sortu baitute zirkulazioa eta kotxeak uzterakoan. Horrela, arduradunek azaldu zuten,

ibilgailuendako aparkaleku berriak eraikiko dira, eta zirkulaziorako plangintza berria osatuko da. Taxistak eta ibilgailu erabiltzen dutenak, bitartean, kexu agertu ziren hori dela eta, eta egun batzuk beharko dira egoera berrira ohitzeko.

Instalakuntza berriak zapaldu zituzten lehendabiziko bidaiariak igande arratsaldean Madrill-Iruña bidaiaria Aviaco agentziaren egin zutenak izan ziren, eta arratsaldeko 8.30etan heldu ziren Noainera. Denen artean azpimarratu zuten instalakuntza berriak ireki arte zegoen egoera kaxkarrak, baina ez zen kritikarik falta. Izan ere, kafetegia falta zen oraindik.

Iruña

Dendetako kartoien bilketa

IRUÑA

Aste honetan hasi da Nafarroako hiriburuan dendetako kartoi eta fardelen bilketa, Traperos de Emaus taldearen eskutik, eta Iruñerriko Mankomunitateak antolatu duen egitasmoaren barruan. Bilketa txandaka egingo da hiriko zenbait aldetan, eta horretan hiru langile arituko dira, 17 metro kubikoko kamioi batekin.

Lehendabiziko bilketa, beraz, asteartean egin zen II. Zabalguneko dendetan goizeko bederatzi t'erdietatik aurrera, eta bakarrik horretarako deia egin zuten dendetan artean. Mankomunitateak berak egindako azterketa baten arabera, bostehun denda baino gehiagok eskatua zuten zerbitzu hau erabiltzea.

Zerbitzua, aipatu txanden arabera, asteartean II. Zabalgunean, ostegunero Alde Zaharrean



Zaborren bilketa erreztuko da.

eta ostiralero I. Zabalgunean egingo da. Aurrikusitakoaren arabera, bilketa egun osoan zehar egingo da, eta horren truke 300.000 pezeta kobratuko du talde honek.

INFORMAZIOA DENDA GUZTIETARA Bilketari hasiera eman baino lehen

informazioa bidali zitzaizkion dendaguztietari, bete beharreko zenbait neurriekin eta, horrela, gomen-dioen artean aipatzen zen fardel handiak ongi bilduak izan beharra. Halaber, kamioarendako toki aproposa behar du izan dendak, eta papera ongi lotuta dauden kaja edo fardelatan sartu behar da. Kartoiak, era berean, garbiak behar dute izan.

Kanpaina berri honen zioa oraingo edukiontzia ez betetzea izan da, orain arte, dendek ateratzen zuten papera eta kartoiarekin betetzen baitziren. Interesaturik dagoenak zerbitzu hau jasotzeko aukera dauka oraindik, eta horretarako 10 31 92 telefonora deitu besterik ez du egin behar.



BARAÑAINgo Los Saucos ikastetxe publikoak irabazi du Sevillako Expo'92 zela eta antolatu zen lehiaketa, 'El mundo en una isla' ('Mundua irla batean') izeneko lanarekin. Saria beste bost ikastetxerekin batera jaso zuen Barañaingoak, epaimahaiak lan guztien kalitate ona azpimarratu baitzuen.

KORTESko hilerrian, hamaikagarren urtez, gerra zibilean hildako berrogei errepublikarren omenaldia egin zuen Candidatura de Izquierdas taldeak, inguruko herri guztietan aurkezten denak. Errepublikar guzti hauek hilobi bateratu batean daude lurperaturik eta bertan lore sorta eta insignia paratu zuen taldeak. Omenaldia baino lehentxeago, Korteko talde sozialistak ere lore sortak paratu zituen aipatu hilobian.

ITURMRNDIko 'Herriaren Mintzoa' aldizkariak pasa den abuztuan ikusi zuen argia, bertako Nicolas Arbizuk bultzatutakoa. Sei hilabetekaria, bigarren zenbakia Gabonetan agertu liteke. Euskaraz eta erdaraz, Burundako herriko informazio lokala jasotzen du bertan, eta 250 pezetatan saltzen da.



TAFALLAko Osasun Etxean ginekologiarako lanpostu finkoa paratzeko beharra adieraziko diote luze gabe Udaleko ordezkariak Osasunbideko zuzendarari. Izan ere, bertan ez dago lanpostu finkorik eta astean bitan egiten diren kontsultak, ez dira, inondik inora, nahikoak. Adibidez, egungo zerrendan mila emakume inguruk eman dute izena errebisioa izateko.

IRUÑEko San Fermin kalean parranda ederra izan zen joan zen asteburuan. Hain ederra, 120 pertsona zeudela pisuan *juergasmoan*, eta azkenean Udaltzaingoak parte hartu zuela. Bizilagunen deiak zirela eta, bertara azaldu ziren lau udaltzain, eta pisuaren jabea eta beste gazte bat atxilotuta eraman zituzten. Barrukoak botilak bota zizkieten udaltzain gaixoei, tartean 'Viva España' batzuk.

ARRAIOZko zubia larri kalte-tuta gelditu da azken euriteen eraginez, uholdeak zenbait harri eraman baitzituen euskarritik. Bertako juradoak Baztango Udalarari emandako berrian agertu duenez, urak euskarria higitzen jarraitzen baldin badu, zubiaren oreka hautsi liteke.



Asteazkenean Merce Sala Renfeko zuzendariak Nafarroara egindako bisita Tafallako geltoki berria inauguratzeko baino Alli lehendakariari bere asmoen berri emateko aprobetxatu zuen. Horien arabera, ibilbide luzeko

zenbait tren eta erregional asko kenduko ditu enpresa publikoak urtariletik aurrera, defizita murrizteko burutu duen plangintzaren barruan. Horrek larria den egoera itzal handiagoz estaltzeko baino ez du balio izango, azken urteotako bi-

lakaera beltza izan baita. Hamaika geltoki itxi ziren iaz Nafarroan, eta langileen kopurua ere ia erdira murriztu da. Zerbitzu gero eta gutxiago baina geltoki dotoreak. Renfek administrazioen laguntza eskatzen du defizitari aurre egiteko.

Azken trenaren zain

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Joan den astean RENFEK iragarritako ibilbide luzeko trenbideen zerbizituen murrizpena aspaldidanik datorren egoera larriaren azken adibidea izan da. 315.000 milioi pezetako defizitarekin Espainiako enpresa ez da salbuespena Europar, hor ere egoera ez bait da baikorra, eta, kostoak murrizteko asmoz, egitasmo orokorrari ekin dio enpresak, bere kideek bezalaxe. Nafarroak bereziki somatuko du horren eragina.

RENFEren asmoa defizita sortzen duten sareak desagertarazi baino, geltokiak eta zerbitzuak murriztea da. Bi hitzetan: gero eta geltoki gutxiago. Hori, bistan da, geltoki handietan baino txikitzen somatuko da, eta, bidai luzeetan baino, erregionaletan. Gure lurraldean, beraz, zuzen-zuzen ukitzen duen egitasmoa, iaz 800.000 bidaiari baino gehiagok erabili bait zuten zerbitzu hau. Horrela, Nafarroako trenbidearen irudia, gero eta gehiago, geltoki gutxiagoena izango da: geltoki hutsena, alegia.

EUROPAN ASPALDIDANIK DA JORRA Izan ere, Europar aspalididanik da rabilen joera da hau. Gero eta garrantzi handiagoa eman abiadura handiko zer-

bitzuei eta gero eta geltoki gutxiago, aurrekontu orekatuak aurkeztu ahal izateko. Bitartean, errepideak gero eta protagonismo handiagoa kentzen dio trenbideari. Hori dela eta, protestak hasiak dira dagoeneko lurralde ezberdinetan, eta sindikatuak ere ez datoz bat politikari orokor honekin. «Bidaiarien kopuru eskasa aipatzen du RENFEK geltokiak ixteko eta zerbitzuak murrizteko —azaltzen du Jaime Marquez Nafarroako CCOOkoak—, baina guk beste ikuspuntu daukagu: jendeak ez du trenbidea erabiltzen, hain zuzen ere, gero eta

zerbitzu gutxiago dagoelako. Politika ausarta behar da egin, zerbitzu hobeak emateko eta errepideak aukeratu duen jendea bereskuratzeko. RENFEK, bitartean apaintze lanetan xahutzen du dirua».

ADMINISTRAZIO FORALAREN PARTAIDETZA 700 milioi pezeta gastatu du azken bost urteotan enpresak zenbait hobeak emateko. Komenioen arabera, lurraldeko administrazioak hartuko du bere gain 'interes soziala' duten zerbitzuen defizita.

Horretarako lehendabiziko elkarriketak egin dira Nafarroan ere, baina emaitzarik gabe.

Hamaika geltoki gutxiago iaz

A.B. / IRUÑEA

Bitarteko geltokien desagerpena izan da Nafarroako trenbidearen birmoldaketak honen azken urteotako eragin nabarmena. Iaz, hamaika geltoki itxi zituen RENFEK, aurretik jasotako estadietarako hala aginduta: Noain, Biurrun-Arrizabalaga, Artedereta, Garinoain, Puiu, Beire, Pitillas, Murillo el Cuende, Kaparrosa, Milagro eta Kandreia.

Izan ere, Noainen, bi bidaiari

hilabe bakoitzeko bezalako datuak jaso ziren, Pitillasen bezalaxe, eta besteetan, batz bestek, ez zen inor igo, trenera.


Baina geltokiak ixteaz aparte, Altsasu-Kastejon bitarteko zerbitzua ere arriskuan dago, RENFEren barneko agiri baten arabera. Zerbitzu honetan dagoen defizita aipatzerakoan ez da kontutan hartzen beste tokietatik datoztenak edota transbordoa egin behar dutenak, baizik eta, bakarrik, bi geltoki hauen arteko ibilbideren bat egiten dutenak.

1985an sinatu zen komenioa —zenbait hobeak emateko— agorturik dago jadanik, eta sindikatuak konpromezua hartu beharra azpimarratzen dute. «Hemendik igaro ahal izateko sare osoa goitik behera berri beharko litzateke».

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi, bere ustetan, zerbitzua hobetu ezin daitekeekin eta egun dauden beste aukerak bultzatzearen alde azaltzen da CCOO-ko ordezkaria.

1985an sinatu zen komenioa —zenbait hobeak emateko— agorturik dago jadanik, eta sindikatuak konpromezua hartu beharra azpimarratzen dute. «Hemendik igaro ahal izateko sare osoa goitik behera berri beharko litzateke».

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi, bere ustetan, zerbitzua hobetu ezin daitekeekin eta egun dauden beste aukerak bultzatzearen alde azaltzen da CCOO-ko ordezkaria.



Madril-Iruña, 300 kilometro orduko

A.B. IRUÑEA

Madril-Iruña ordubete eta berrogeitamabost minututan, 300 kilometro orduko, ez da amets hutsa, Nafarroako Gobernuaz aztertzen ari den aukera baizik. Abiadura Handiko Trena (AHT) du helburua 1989az geroztik burutu den ikerketak, zerbitzu hau Nafarroan ere ezartzeko. Hala ere, AHTr buruz Espainia osoan dauden zalantzak ez omen diote aukera handirik uzten Nafarroari, egin beharreko inbertsioa, Iruñeko Gobernuaren kalkuluen arabera, 125.000 eta 150.000 milioi pezeta bitartekoa izan baitaiteke.

Ikerketa 1989 eta 1991 bitartean burutu zen, eta bertan AHT Nafarroatik igarotzeko egin beharreko hobeak eta ibilbidean aldaketak aurrikusi ziren. Gai honi buruz dagoen zehaztasunik eza —Madriletik ezetik, Europako agintariek ere hartu beharreko erabakiak direla eta—, garbi antzematen da ikerketaren emaitzetan, hiru abiadura desberdinak aipatzen baitira: 150 eta 300 kilometro orduko bitartekoak.

SINDIKATUENDAKO «PROPAGANDA HUTSA» Sindikatuen arabera bai, AHT Nafarroan «Renfe eta Nafarroako Gobernuaren propaganda hutsa besterik ez da». Jaime Markezusen ustetan, abiadura handiaren abantailak Andaluzia eta Kataluniak eskuratuko dituzte lehendabizik, eta oso zaila deritza Nafarroan ere ezartzeari.

«Hemendik igaro ahal izateko sare osoa goitik behera berri beharko litzateke».

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi, bere ustetan, zerbitzua hobetu ezin daitekeekin eta egun dauden beste aukerak bultzatzearen alde azaltzen da CCOO-ko ordezkaria.



Ez dago geltoki hutsarena baino irudi bakartiagorik.

ALBERTO BARANDIARAN

Kaferik gabeko geltoki hotza

A. BARANDIARAN / ALTSASU

«Ordu egirik ez dago», dio leihatilan dagoen langileak, burua ia altxatu gabe. Alferrik da beste inolako informazioa eskatzea, gogo handirik ere ez baitauka, antza, funtzionari aspertuak. Eurria ari du Altsasuko geltokian, baina kafe beroa edota libururen baten konpainian hurrengo trenaren zain egon nahi duenak jai dauka eraikin hotz eta desatsegin honetan, kafetegiak eta liburudendak aspaldian itxi baituzten. Hori bai, itxaron gela dotore-dotorea, berrieta. Baina ordutegirik ez.

Geltoki hau Nafarroako trenbidearen beheakadaren adierazgarri aski garbia da. Inbertsio handi samarrak apaintze lanetan —1991n 16,2 milioi pezeta—,

baina gero eta tren eta zerbitzu urriago, eta, larriena, gero eta bidaiari eskasago.

«Uste dut hortik dela», diote mutiko batzuek geltokiaz galdetzen zaieanean, baina ez daude ziur. Harrigarria, lehendabiziko pausoak lurnezko makina batean eman zituen herri batean. Altsasu herri nekazari zen mende honen hasiera arte, nahiz eta zenbait ola eta lanteri bertan paratzen hasiak ziren dagoeneko. Mende honetan goitik behera aldatu zen itxuraz, hain zuzen ere gaur egun hain ahaztua dagoen trenbideari esker. Kokapen estrategikoa aparta —Iruñea-Bartzelona eta Madril-Irun norabidearen arteko uztartaria—, bideekin batera heldu ziren bertara langileak, dirua, eta bultzapen ekonomikoak. Horri esker, Burundako herriak pisua hartu zuen Nafarroan eta alde osoko hiriburua izan zen.

Duela gutxi arte, altsasuar gehienek trenbidea erabiltzen zuten Iruñera, Gipuzkoara edo Gasteiza joateko. Autobusa, noizbehinka eskutitzak eta fardelak bidaltzeko, edo trenera berandu helduz gero erabiltzen zen geltokirik gabeko ibilgailu ahaztua zen. Toki askotan bezala, baina, hona ere trenbidea berandu heldu da bere bidaiari garrantzitsuenaren txartela hartzera.

AUTOBUSAK TRENARI GAILENDU Autobusak zerbitzuak hobetu eta ugartu dituen bitartean, trenbidea asko da konkurrentziaren aurrean, eta zerbitzuak gero eta gehiago murriztu dira. Pasa den ekainean ibilbide luzeko hogeita tren igarotzen ziren Altsasutik, eta ingu-

ruetakoak, beste hogeita. Egun, bi zerbitzu daude Iruñera eguneroko —10,46etan eta 23,56etan—, eta bost ateratzen dira Gasteizerantz. Irurera bidea egiten dutenak ugariagoak dira: 12.

Murrizketa honek izugarriko garrantzia izan du eragina sozialari dagokionez, eta egun, Altsasuko geltokia heririk urrun dagoen eraikin arrotz samarra da bertakoendako ere. Hainbeste, ezen duela gutxi egindako lanen hondamenaz inor gutxi enteratu baitzen herria, egunkaritan atera arte, hain zuzen. Autobusa, bestalde, ohizko garraio bihurtu da. Goizeko seietatik aurrera eta ia orduo egiten dute Gasteiz eta Iruñeraren arteko ibilbidea.

Udala ere, beharrezko jabe-turik, ordutegiaren azken murrizketari buruz erreturtoa paratzea aztertzen ari da, baina gestio guztiak alferrikakoak izan dira orain arte.

Kastejon da Nafarroako bigarren geltoki nagusia, Iruñekoak aparte, eta bertan ere aurrikuspina ez da oso baikorra. Madril eta Bartzelonaren arteko trenbidearen uztartaria, laurogei bat tren igarotzen da egunero bertatik, baina horietako asko dagoeneko ez dira gelditzen. Bertan ere geltokia izan zen herriko ziztada mende honetan zehar, baina lantegiak bizi duten egoera kas-karra dela eta, trafiko franko murriztu da. Hainbeste, ia testimoniala dela.

Bitartean, txukuntze lanak geltoki dotore uzten ari dira egunotan, baina horrek nekez arinduko du bide eta kaiek erakusten duten bakardadea. Eta ez dago geltoki hutsarena baino irudi bakartiagorik.

Elizondoko urriko feriak

● Elizondoko urriko ferien fama ona, barreiatua dago Euskalerrri guzian, mendez mende irauten duen feri famatuak erreliste handia du. San Lukas ondoko asteko ortzira-lean ospatzen dira feriak eta aurten 30ean izan dira.

Denborak aldakuntza handia egin du eta feriak ere denboraren arabera aldatuak dira. Duela 65 urte eta gure oroitzean, feriak ortzegunakin hasten ziren eta hiru egun irauten zuten eta orain bezala, ortzira-lea izaten zen egunik haundiena. Larunbata etxeko-andreen eguna izaten zen, 'atsot ferie' zenbaiteki dioten bezala. Asteazkenean hasten ziren mugimendua, ortzegunetan ferien lehen denbidezko eguna, ortzira-lea egun handia,



azienda mota guzietakoak salgai (denbora hartan astoak eta mandoak ere pileak). Yende aunitz orduan ere, Baztan, Malerreka, Ultzama, Bidasoa, Lapurdi ta Baxenafarrotik etortzen baitziren feri egunaz goxatzera. Baztango leku urrutietatik yendea oñez etortzen zen, Basaburuatik, Orabide, Arizakun, Urriatze eta urrutietako baserrietatik denak oñez, yendea orduan aise ibiltzen zen. Aldude eta Urepeletik ere denak oñez eta ez orain bezala denak autoz. Ostatuak beteak eta hortarako ere baziren otordu merkeak. Merkaturko gorapetan yatera ematen zuten arrot merke, yateko arrotta bai, zardin eta eltzekari ona hogeita hamar soretan eta bi pezetetan ere. Holaxe duela 65 urte. Larunbatean etxeko-andreen eguna, denak etortzen baitziren Elizondora neguan behar zituztenak eroatera, soñekoak, mantak, oñetakoak eta gañerakoak, etxea ongi hornitua egon zaie negu bortitza neke haundirik gabe patsatzeko. Denbora hartan yendea epazpitzen mugitzen beren baserrietik, batez ere neguko egun bortizetan.

Aurten ere feriak ospatu dira eta eguraldi txarra nagusi. Eurria leher egun guzian baina halare jende aunitz bildu zen Elizondon. Merkaturko yendak eta oñak, zaldi, asto eta mando. Agorrietatik ekarritako behi gorri bat 914 kiloko, 240.000 pezetetan saldu zen. Urtero bezala makinari aunitz salgai eta saltzaileak ugari mota guzietako gauza salgai.

Atsaldean Nafarroako Aizkolaria Txapelketa. Yende aunitz aizkolarjetan. Mikel Txingedia bere 43 urterekin Txapelidun. Zorionak Txapelidunari eta bai bertze gañerakoek. Urriko feriak gan dire eta orai bagozai gain-bera negu aldera.

Gazteendako Zokoa

Birigarro arrunta

Turdus philomelos
Harriekin hausten ditu barraskiloak
Iparraldean ugaria



Kantari aparta

Zozo arrunta baino txikixea-goa, birigarro arruntak iluna dauka sorbalda, eta txuria, zenbait zoldekin, bularraldea. Basoak eta ostoa asko duten zuhaitzak ditu gustoko, baina bere elikadura lurrean bilatzen du beti, saltoka. Bertan harrak, zizareak, barraskiloak eta animalia txikiak harapatzen ditu, eta udan fruitu, mahats edota olibak jaten ohi ditu.

Kantari aparta, arrak ongi asko markatzen du bere lurraldea zuhaitzen puntetatik egiten dituen kantuekin. Bere presentzia, askotan, harri baten inguruan gelditzen diren barraskiloen koskol hautsiek adierazten dute. Izan ere, birigarroak ingude baten modura erabiltzen baititu harriak. Mokoekin kolpatu eta puskatu ondoren barrukoa jaten du.

Oso arrunta da Europa osoan, Iberiar Penintsulan, Italiako kostaldetan eta Mediterraneoan irletan izan ezik. Gehienek migrazioa egiten dute, eta negua Europako mendebaldean eta Mediterraneo inguruan ematen dute. Gabez egiten dute bidaia eta goizez atsedena hartu eta elikatzeak aprobetxatzen dute.



Agur

MAIDER ESEBERRI

Eguzkia, bere azken izpia zerrura jaurti ondoren, itsasoko ur hotzean poliki-poliki urperatzen doa. Mantso-mantso desagertzen doa, gero eta argi gutxiago dago eta kaiolak lurrerantz abiatzen dira beraien gaueko loaren bila.

Iluntasuna iritsi da. Hondartza hutsik dago, ez da arimarik ikusten. Entzuten den soinu bakarra olatuen hotsa da, harearen eta harkaitzen kontra apurtzen delarik.

Ura lasai dago. Dena ixiltasun oso batean dago, baina... Pausuak ixilak dira baina entzun daitezke uraren gainean norbait ibiltzen ari delako. Nor dator ordu haue-tan itsasoaren lasaitasuna apurtzera? Nor ausartzen da itsasoko urbazterretik bakarrik ibiltzera?

Irudi mozoraturik agertu da. Itzal nabarmena, emeki-emeki

urbazterretik ateratzen da, arratsaldeko beroa galdu duen harean eseritzera. Irudiaren bisai zurbi-lean malko iheslariek disdiratzen

Bere eskuan distira egiten duen zerbaiti eusten dio gazteak. Bere sentimenduak kanporatzera etorri da itsasoaren bakardade eta isiltasun honetara.

dute. Begi urdin biziak kaparen atzetik izkutatzen dira. Tristetatsuna isladatzen da haietan. Zer

pentsamendu gurutzatuko dira buru horretatik? Zein sentimenduk bultzatuko dute giro bakarti honetan babestera?

Beso txuri bat agertu da arroparen artetik. Bere eskuan asko disdiratzen duen zerbaiti eusten dio. Gazte hau bere sentimenduak kanporatzera etorri da itsasoaren bakardade eta ixiltasun honetara.

Txanoa erori eta bere sorbaldan ile luze eta horia zabaltzen da. Gazte honen edertasuna berak daukan barneko egoerarekin handituz doa. Bere burmuina lanean ari da baina ez du erantzunik aurkitzen. Zergatik joaten zaizkigu atsegin ditugun pertsonak? Zergatik itzulirik gabeko bidaia hori? Eta denak gezurra dirudi, baina ez. Dena egia da.

Gaztea altxatu da. Haiak ez dira inoiz hilko bere bihotzean.



BASAJAUN

Nahiko haserre nago. Oraindik ez omen dugu ikasketa gureganatu. Zenbat ordaindu beharko dugu ingurugiroaren arazoari behingoz garrantzia emateko? Zenbat sufritu behar dugu eta zeren zain gaude gertatzen denaz jabetzeko? Gure etxeetan lasai-lasai bizi garen bitartean eta gure bizimodua zailantzan jartzen duen ekologismoaren diskurtsoari muzin egiten diogun bitartean, gu gara gertatzen denaren errudun bakarrak.

Gure jokaerarekin, nahiz eta inork ezer leporatu ez, etorkizunak eskatuko dizkigu kontuak, eta faktura ez da makala izango: milaka gaixotasun, goseteak, lehorteak, uboldeak eta herri osoen desagertzea —Antartikoko izotzen urtzea dela eta— tenperaturen igoera, berotegi efektua, desertizazioa, atmosferaren kutsadura... Eta batez ere gure harrokeria, gure etika falta eta gure mezprezu negargarria. Hori beste etikari buruz —gizakumearen existentzia ziurtatzeko— aritu gabe.

Baina zeren itzaropena izan dezakegu beranduegi izan baino lehen lanari ekiteko, honen aurrean '90eko Etiopiaren' errealitate negargarria, Somaliarena hain zuzen ere, aurrean topatzen baldin badugu?

Eragina hain zuzena duten arazoei irtenbidea emateko gai ez baldin bagara —ez berehalakoa, Somalia ez baita bapatean heldu horrelako egoera batera, hondoratze prozesu baten bidez baizik, beste lurralde askoren konplizitatearekin—, gai ez baldin bagara, diot, nola lortu jendea ardura dadin ekologiaz?

Behintzat errudun eta lotsatuta sentitzeko eskubidea daukat oraindik, astebururo, iluntzean, alkohola edatea besterik ez baitakit, Afrikako bizitza ureztatze baliagarriak izan zitezkeen sei mila pezeta horien truke.

Jenero Xumekoak

Klaus Kinski Aranoko neskari

Agendaz aldatu beharra nuen eta zazpigarren orrialdean haren izena. Hau jakitera nahiago nukeen beso bat igogailu bateko atean galdua. Aranoko neska, Arano, begiurdina, zima ederrekoa. 948 3456321, Basque Country. Haren ondoan igarotako egunen oroimenak ez dira urtzen. Badirudi porlanezkoak direla, haren bihotza bezalakoa.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

Z I A M E Z L U S I U S
A B A G U X U X I G D A
E I S K A Ñ T K I A E D
X L A A Z I N E E L L A
T E A N L I E N R A R R
E A E T A A O S A R G A
O N X Z E D B E P T A G
G K R A N U R E U Z B R
N U I A L E U T R A S E
E E R T O U R Z A R I B
B R E T E G I N A L I E
E T Z A G I K O L E B A

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako pilotari ezagunen izenak. Izan hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalen irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Harekin larreak erre ditu.

Hartu-emanak puskatzen direnean.
Basaburua

Lan bila zegoen bat aroztegi batean sartu zen:

- Zer dakizu egiten?
- Irudigilea naiz.
- Atera ezazu hortik ba San Jose bat— eta eman zioten egur zatia.
- Handik ordubetera egurra baino ez zuen eskuetan, ezpalak kentzen zituen bitartean.
- Non dago ba irudi hori?
- Oraindik ez da azaldu, baina hemen baldin badago laster aterako da.

Bizi Bizian


Nafarroako Museo Etnografikoa Iratxeko monastegian paratuko da, Kultur Zuzendaritzak horrela erabaki ondoren. Horretarako bederatzi milioi pezeta emango du Gobernuak, batez ere orain arte bildutakoa sailkatu eta bere garrantzia zehazteko. Honekin batera, aurrerantzean erosketa berriak egiteko asmoa dauka Gobernuak, arlo honetan dagoen hutsuneaz jabeturik. Museo hau duela 50 urteko asmoa izan da, eta bertan aitzindari izan zen Julio Caro Baroja beratarra, bere anaiarekin batera. Horiek bildu zuten Bidasoa eta Mendialdeko material franko, baina ondoren ez zen jarraipenik izan. Jose Ulibarrenaena soilik, Artetan daukan museoarekin.

Museo Etnografikoa Iratxen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroako Gobernuak 9 milioi pezeta sartuko ditu Museo berri honetan lehendabiziko bi urteotan, orain arte bildutakoa paratzeko eta sailkatze prozesu zehatza egiteko. Izan ere, duela gutxi jaso du Kultura Zuzendaritzak Zangozerrian Francisco Javier Beunzak bildutako materiala, bereziki artisautzaren ingurukoa, eta hori aurretik dagoenari gehituko zaio. Sailkapen honen bidez, materialaren egoera eta garrantzia ezagutu ahal izango dira, eta dauden hutsuneak betetzeko erosketen plangintza zehaztuko da. Horretarako, lehengo erara, erosketak egingo ditu Nafarroako Gobernuak, eta materialak museoari «uztea» eskatzen du jendaurrean.

Horren ondotik, «eta Nafarroako egoera ekonomikoak horretarako aukera ematekotan», material honen sailkapena paratuko litzateke Iratxeko monastegian, 1994 eta 1995 bitartean. Tokia aukeratzeko zenbait irizpide izan du kontutan Gobernuak: toki aproposa, komunikazio egokiarekin; zabalera nahi-




Museoan orain arte bildutakoa paratuko da.

koa, bertan azken urteotan inbertsio handiak egin baitira, kontserbaziora begira; eta eraikinak berak duen interes artistiko-historikoa. Hala ere, Gobernuak azaldutakoaren arabera, eraikina

ez da behin-betikoa izango, eta beste tokira eramateko aukera berriro planteatu liteke aurrerantzean.

Tokiarenak, hain zuzen ere, Berako Udalaren protesta ofiziala eragin du, aspaldidanik baitzuen egina horretarako eskaera Bidasoako herriak. Horrela, pasa den urriaren 26an egindako udalbatzan, Udalak aho batez onartu zuen Iratxeko monastegia horretarako aukeratu izana gaitzestea, «kontutan hartuz Udal honek Museoaren paratzeko aspaldidanik egindako gestioak». Manuel Iriarte Berako alkateak azaldu duenez, aurtengo



Jose Ulibarrena. BERNABE MALLO otsailean, Markotegi Kultura kontseilariarekin egindako bileran nahi hori berretsi zuten beratarrek, baina aurretik frankotan solas eginak ziren gairi buruz. «Kontutan hartu behar da —dio Iriartek— Iratxen dauden lanabes horietako asko Berako baserri eta auzoetan erosi zituztela Caro Baroja anaiek».

Iratxeko monastegia aukeratzeko Berako Udalaren protesta ofiziala eragin du, aspaldidanik egina baitzuen bertan paratzeko eskaera Bidasoako herriak.

Museo hau sortzeko ideia 50eko urteetan proposatu zuen lehendabiziko Euskalerraren Adiskideen Elkarteak, Iruñeko Anton kalean zuten egoitzan paratzeko. Hala ere, 1966an sortu zen asmo finkoena, Julio Caro Barojaren eskutik. Berak erosi zituen Diputazioarendako lehendabiziko lanabesak, eta berak bultzatu zuen oraindik argitaratzen diren 'Cuadernos de Etnografia y Etnologia' saila, bere anaiarekin batera zenbait dokumental ekoizteaz gain.



Iratxeko monastegian inbertsio eginak ditu jada Nafarroako Gobernuak.

Caro Baroja: «Funtsezko urteak dira hauek etnografiarako»

P.U. / IRUNEA

Nafarroako etnografiaren bilatzaile eta bultzatzaile aparta, Pio Baroja bere osabarekin batera, Julio Caro Baroja beratarra izan da Museo Etnografikoaren alde gehien lan egin zutenetarikoa bat. 1966an etnografiari buruz Iruñean izan zen kongresutik aurrera ekin zion lanari, eta bere osabarekin eta Jose Maria Sarrutegirekin hasi zituen herri bakan batzuetan edota baserri galduetan gelditzen ziren azken lanabesen bila.


Madrileko bere etxetik berak gogoratu duenez, Nafarroako Diputazioak orduan diru kopuru

bat eman zion lanabesak eta beste gauzak eros zitzen. «Urangaren garaian izan zen —gogoratu du Caro Barojak— eta diru horrekin mendialdea, Bidasoa eta Urdiainen ere erosi genituen zenbait lanabes, interes etnografiko handikoak denak. Dena bildu zen orduan Iruñeko Perituen Eskolan, baina geroztik ez dut horren berri izan».

Lanabes hauek dira, hain zuzen, orain Iratxeko monastegian bildu direnak, baina etnografoak azaldu duenez, berak bildutakoetatik gutxi gelditzen dira. «Uste dut horietariko asko desagertu eta hondatu direla, baina ez dago oso garbi».

LANARI EKITEKO GARRANTZIA

EGUNKARIAren bidez izan zuen Museoaren berri Julio Caro Barojak, eta pozik azaldu zen berria ezagutzearan. Hala ere, lanari berehala ekiteko garrantzia azpimarratu du. «Guk jaso genituen lanabes asko desagertuta edo desagertzeaz zeuden, eta nire lan horretaz aparte, nahiko geldirik gelditu zen dena, inork ez baitu bilteta sistematikorik egin. Gogoratu behar da urte hauek funtsezkoak direla etnografiarako, duela 30 edo 40 urtetan ohizkoa zena jadanik desagertuta egongo baita. Horregatik, berehala hasi behar da be-



Julio Caro Baroja.

rriro bilteta lana». Berak azaldu duenez, Bidasoa eta mendialdeko zenbait zati, orokorrean, nahiko ongi jasota daude, baina hutsune izugarria gelditzen da Erronkaritik Erriberaraino.

Fernando Mikelarena

..... historiagilea

Hogeitabederatzi urteko beratar honek tesia aurkeztu zuen pasa den irailaren 23an UNEDen, baita *cum laude* lortu ere: puntuaziorik onena, hain zuzen. Lan honetan Nafarroako populazioaren bilakaera eta osakera aztertzen du

1553-1900 bitarteko epean, eta, azaldu duenez, garbi ikusten da euskara inoiz hitz egin zen aldeetan familiaren osakera desberdina zela besteez. Hain zuzen ere, Nafarroa bi familia mota dituen lurralde baka- rrenetakoa dela dio Mikelarenak.

«Nafarroan bi herri daude»

ALBERTO BARANDIARAN / BERA

Tesi mardul honetan lau kapitulu jasotzen ditu egileak. Lehen-dabizikoan Nafarroako eskualdeen baldintza ekonomikoak azaltzen ditu, eta nekazaritza eta abeltzantzaren zabalpena. Bigarren kapituluak 1553 eta 1900 bitartean populazioak izan zuen bilakaera aztertzen du Mikelarenak, eta bertan azaltzen duenez, lurralde historikoen artean igoera txikiena izan zuen nafar populazioak. Hirugarren kapituluak populazioaren osakerari dagokio, eta laugarrenean familia motak eta heredentziaren erregimena aztertzen ditu.

Hain zuzen ere, honi buruz el-karrizketatu dugu beratar gazte hau, eta berak azaltzen duenaren arabera, familiaren osakera desberdinetan antzeman daitezke euskara eta euskal kulturaren mugak. Garbi dioenez, «Nafarroan bi herri desberdin daude».

EGUNKARIA.— Zure lan honetan familiaren osakera eta biztanle-goaren bilakaera aztertu duzu. Zer-nolako garrantzia dauka horrek gaur egungo gizartean?
FERNANDO MIKELARENA.— Lan honekin azken lau urteotan aritu naiz, eta orain arte deus ez zegoelako interesatzen zitzaidan. Historiaren arlo interesgarria da familiarena, Europan aunitz lan egiten baitute honetaz. Hemen Nafarroan ez zen egin orain arte. Familiak adierazten du kultur ingurua, sustrai etnikoak eta kulturalak. Espainiako iparraldean behinik behin, familia konplexua da, hemen Euskal Herrian ezagutzen duguna. Hau da, familia batean bi bikote bizi dira elkarrekin: bata, guraso zaharrena, eta bertzea, guraso gazteena. Zergatik den hori? Heredentziagatikan.

Heredentzia guztia seme baten-tzako da eta ez da banatzen.

EGUNKARIA.— Askotan esan ohi da hori hemengo azienden tainagatik izan dela, txikiegiak ez gelditzeko.


MIKELARENA.— Hori arrazoi bat da, baina kontutan hartu behar da mendialdean edota Kantauriko isurialdean dauden aldeetan arrazoiak izan daitekeela, ez ordea Lizarrerrian edo Tafallerrian. Han aziendak handiak dira, eta hala ere familia konplexua da bertan. Nafarroan bi familia mota aurki ditzakegu: konplexua eta sinplea, hau da familia bikote baka- r batek osatzen duenean. Hemen hizkuntzaren zabalpena eta familiaren mugak berberak dira eta hori ez da beste inon aurkitzen. Harrigarria da.

EGUNKARIA.— Orduan, hizkuntzak familiaren osakera agintzen du?

MIKELARENA.— Hizkuntzak baino, sustrai etniko eta kultural- lek. Konprenitzeko ez da erreza, baina seguru aski gizartetan horrelakozain kulturalak oraindik hor diraute.

EGUNKARIA.— Eta zer garrantzia dauka honek?

MIKELARENA.— Askotan esaten da, eta aspaldidanik indarrean dagoen korrante historiografikoa da, baldintza ekonomikoak direla historiaren bilakaeraren sortzaileak. Nere lan honekin ikusten da baldintza ekonomikoek garrantzia badutela, baina ez direla bakarrak. Hau da, badaude baldintza kulturalak ere, eta kontutan hartzekoak dira. Hori azpimarratzeko da ezkerreko historia- lariantzako. Orain arte esaten zen ekonomiak dena baldintzatzen zuela, baina ekonomiaren gibe- lean ere aurkitzen ahal dira arrazoi kulturalak.



Berako bere etxean.

ALBERTO BARANDIARAN

EGUNKARIA.— Aipatu duzu familia motaren eta euskararen mugak berak direla, baina euskarak atzera egiterakoan, familiak ez zuen gauza bera egin. Horrek sortu al zuen arazo edo desorekarik?

MIKELARENA.— Argi dago Nafarroan bi herri dau- dela: euskalduna dena edo izan zena, eta bertzea, Erribera, euskalduna izan ez dena. Familia konplexuak eta hereden- tziaren erregimenak gaur egun

Lizarrerria eta Tafallerrian ber- tan diraute, eta Erribera bertze mundu bat da. Honekin ere bada bertze gauza sarturik: zergatik Nafarroan, nahiz eta baldintza kulturalak tartean izan, nazionalismoak ez du inoiz indarra hartu? Erriberan, adibidez, naziona- lismoak gaur egun- ean ez du inolako indarrik.

EGUNKARIA.— Eta hori kulturaren mugekin lotzen duzu?

MIKELARENA.— Behin lagun

batek erran zidan euskararen mu- ga kultural horiek karlismoaren zabalarekin oso garbi ikusten zirela. Bainan hori esatea oso- rriskutsua da.

EGUNKARIA.— Eta familia kon- plexu honen mugak, Nafarroaz aparte, nola daude beste tokie- tan?

MIKELARENA.— Hemen, Piri- nioetan aurkitu daitezke, eta hor- taz aparte, Alpeetan, Irlandan eta Japonian ere. Hala ere, oraindik ez dago aztertuta zergatik leku horietan bakarrik dagoen familia mota hau, eta hori azaltzea oso zaila da. Inork ez du egin. Arrazoi kulturalak daude horren gibe- lean, baina oraindik ez dute azal- du.

Nere lan ho- netan garbi ikusten da arra- zoi ekonomi- koaz aparte, arrazoi kultura- lek ere garran- tzia badutela historiaren bila- kaeran.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERBA

